

GOBERNU IREKIARI ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOARI BURUZKO LANTEGIA

otsailak 21 | 9:00 h

Nafarroako Artxibo Nagusia.

Ekitaldi Aretoa (beheko solairua)

Maiatzaren bira kalea, z.g., Iruña



PROGRAMA:

9:00 h Irekiera, **María Chivite Navascués** Nafarroako Gobernuko lehendakariaren eskutik.

9:10 h **Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuaren aurkezpena**, **Joseba Asiain Albisu** Lehendakarietzako eta Gobernu Irekiko zuzendari nagusiaren eskutik.

9:30 h **“Gobernu Irekia eta Administrazio Publikoa: ulertzea, inspirazioa hartzea, ekitea”**, hauen eskutik: **Cecilia Güemes** (Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakaslea) eta **Jorge Resina** (Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko irakaslea)

1. MULTZOA. ULERTZEA

Lehen atal honetan hizlariak Gobernu Irekiaren oinarriak aurkeztuko dituzte eta analisirako duten tresna nagusien ezaugarriak aipatuko dituzte.

Gobernu irekia zer den, zertarako balio duen, zein diren haren osagai eta zutabe nagusiak, zein esparru teorikori erantzuten dion, zein eraldatze ahalmena duen eta nola jokatzen duen erakunde eta politika publikoetan. Zein den abiaburua, zer zailtasun eta erresistentzia dauden, eta zer aukera eta zein lagun ditugun. Helmuga: gobernuaren eta herritarraren artean elkar eragiteko eredu berriak sortzea, demokrazia bizkortzea.

2. MULTZOA. INSPIRAZIOA HARTZEA

Bigarren atal honek helburua du gardentasun eta parte-hartze alorrean arrakasta izan duten esperientziak partekatzea, inspirazioa hartzeko ideia eta estrategia berrietarako

Madrilen, Euskal Erkidego Autonomoan, Aragoian eta Frantzian gauzaturiko ekimenen identifikazio eta ezaugarritzetik abiatuta, zehatz ikasten da nola diseinatzen, txertatzen eta abiarazten diren gardentasuna eta herritarraren parte-hartzea sustatzeko programak. Kontua ez da kopia ezea, baizik eta inspirazioa hartzea, gai izateko, norberaren errealitatearen ezagutzatik eta dauden eskaeretatik abiatuta, Nafarroarako gisa honetako estrategiak pentsatzeko eta irudikatzen.

3. MULTZOA. EKINTZARAKO PRESTATZEA

Hirugarren atal honetan mahai gainean jartzen da Nafarroaren testuinguruan Gobernu Irekirako ideia berriak abiarazteko aukera emanen duen bide-orriaren diseinua

Xedea da gomendio eta “puntu bero” sorta bat partekatzea, kontzeptuak Nafarroako errealitateko ekin tza zehatzetara ekartzeko lagungarri. Hona zer iradokitzen den horretarako: a) premiak, eskaerak eta helburuak identifikatzen eta lehenesten dituen diagnostiko batetik abiatzea, b) gogoan hartzea zer baliabide, gaitasun, eskaera, eragile eta esparru kognitibo dauden eta zeinek emanen luketen ekimena aitzina eramateko aukera, c) esku-sartze eskema bat diseinatzea eta planifikatzea, aldaketa estrategia ezari-azarikoak eta errotikakoak jasoko dituen.

12:45 h **Emaitzen aurkezpena eta jardunaldiaren itxiera (13:00 h).**

HARTZAILEAK:

Nafarroako Gobernuko Administrazioa: kabinete buruak, zuzendari nagusiak, idazkari tekniko nagusiak, erakunde autonomoetako zuzendari nagusiak, sozietate publiko eta fundazio publikoetako kudeatzaileak.





HELBURUAK:

Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren 16. helburuak dio sortu behar direla erakunde eraginkor eta gardenak, kontuak emanen dituztenak, eta bermatu behar dela hartzen direla erabaki barne hartzaileak, parte-hartzean eta ordezkagarritasunean oinarrituak eta premiei erantzuten dietenak.

Bizikidetzan, berdinaletasunean, berrikuntzan eta aurreraletasunean oinarrituriko legealdi baterako 2019-2023ko Programa-Akordioako ekintza politikoaren bosgarren ardatzean jasorik dago behar dela XXI. mendeko herritar-tasunaren eskubide berriak bulkatu, guztion ongiari begira ardurakidetzan sustraituriko kultura ezarri eta sistema demokratikoan eta haren kontrol, gardentasun eta parte-hartze tresnetan sakondu. Horretarako, abiatu beharra dago berroneratze egitasmo bat, erroitik demokratikoa, helburu izanen duena hurbiltzea karrakako errealitatea erakundeetara, gardentasunaren, komunikazioaren eta elkarreraginaren bitartez, baita ezabatzea ere pribilegioak eta mundu ekonomikoaren eta politikoaren arteko eragin nahi gabeen eremuak.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak, 2019ko irailaren 17an bere departamentuaren jarduketa ildoen berri emateko egin zuen agerraldian, aipatu zuen "erakunde publikoen eta gizarte zibilaren arteko baitezpadako elkarlan aktiboaren" beharra, baita "sistema demokratikoan eta haren kontrol, gardentasun eta parte-hartze tresnetan sakondu" beharra ere. Hain zuzen ere, Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua sortu da helburu hori betetzeko eta herritarrek laguntzeko zerbitzu publikoak sortzen eta hobetzen eta gardentasuna eta kontu ematea sendotzen.

HIZLARIAK

Cecilia Güemes. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakaslea. Doktorea Politika Zientzian (UCM), ikasketa aurreratuetako diplomaduna Gobernu eta Administrazio Publikoan (IIUOG), magisterra Gizarte Zientzietan, Soziologia orientazioan (FLACSO-Argentina) eta abokatua (Universidad Nacional del Litoral, Argentina).

Gobernu Irekiak elkar lotzen ditu parte-hartzea, kontu ematea eta ardurak nork bere gain hartzea, eta gardentasuna.

Gure garai honetan, bi ikuspegi bateratu behar dira, batetik tradizionalagoa, zeinaren arabera parte-hartzeak lege eta politika publiko hobeak diseinatzen laguntzen duen, erabaki horietara jende gehiago, ikusmira desberdinetakoa eta ezaupide askotarikoa biltzen baitu, eta bertetik ikuspegi filosofikoagoa, are politikoagoa, ideien bidezko eraldaketaren zentzuan. Gure lanaren helburua ez da soilik parte-hartze kuantitatiboa izan behar, baizik eta, bereziki, kualitatiboa; hartan, herritarrekin partekatutako da erabaki hartze eta kudeaketa publikoen erronken konplexutasuna, haiek diseinatzeko eta ebaluatzeko fase desberdinetan.

Gardentasuna sistemaren balioa da; zimenduz hornitzen du haien gainean kontuak eman daitezen edo ardurak nork bere gain hartzen, eta herritarri bere parte-hartze ardurakidea errazten dio ezagutzatik abiatuta.

Xede hori lortzeko, beharrezkoa da bere langile gaituen administrazioa egokitzea garai eta hizkera berrietara, haien beharretara eta haien eskaeretara. Zenbait hitz, hala nola esperimentazioa, adimen kolektiboa, lankidetzak, elkarrekin sorkuntza..., gure lan moldea zipriztindu eta eraldatu behar dituzten logikak dira. Bilaketa horrek berekin dakar ezaupide teoriko eta teknikoak bertze eremu batzuetako esperientziekin eta herri jakintzarekin konbinatzea, formatu berriekin esperimentatzea eta gaitasuna izatea prozesuak eratzeko pertsonen egiazko problemai konponbide bideragarriak emanen dizkien prototipoak elkarrekin diseinatzeko.

Jorge Resina. Politika Zientziako irakaslea Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, masterra Ikasketak Latinoamerikarretan eta lizentziaduna Politika eta Administrazio Zientzietan eta Kazetaritza eta Komunikazio Sozialesan.

Antolatzailea: